

ARTISTA PLASTIKOAK

Euskal arteak inoiz baino presentzia handiagoa du nazioartean

Orain bost urte Rosa Olivares editore eta arte kritikoak Estatu espainiar osoko 28 arte kritiko bildu zituen eta momentuko artista plastiko onenen zerrenda bana eskatu zien, eta, erantzunekin, “100 artistas españoles” liburua argitaratu zuen, argazkilariak beste liburu baterako zerrendatik kanpo utzita. Ehun izeneko zerrenda horretan bostetik bat Hego Euskal Herrikoa da eta bizpahiru salbu, oso jende gaztea dela esan daiteke.

«Bai, bai, hain herri txikia izateko, euskal artaren pisua izugarria da Estatu espainiarreko artearen munduan. Gure arte tradizioak izan duen garrantzia da faktore nagusia. Gerra aurretik izan genuen tradizio indartsua. Oteizak bazekien hori eta gerra aurreko artisten arteko elkartasuna berreskuratzen saiatu zen bere garaian. Bestalde, erresistentzia politiko baten parte izateak ere lagundu egin dio euskal arteari eta, gaurko egoerara etorrita, Arte Ederretako Fakultate indartsu bat izateak ere badu bere garrantzia. Aipatu duzun Rosa Olivaresen liburuan agertzen diren hogeitik gora euskal herritarretatik gehienak fakultatetik pasatakoak dira», esan digu Ismael Manterola arte kritiko eta Leioako Fakultateko irakasleak.

Rosa Olivaresen liburuko zerrendan Jose Ramon Amundarain, Ibon Aranberri, Txomin Badiola, Jon Mikel Euba, Esther Ferrer, Iñaki Garmendia, Cristina Iglesias, Prudencio Irazabal, Pello Irazu, Maider Lopez, Juan Luis Moraza, Manu Muniategiandikoetxea, Itziar Okariz, Alberto Peral, Juan Perez Agirregoikoa, Txuspo Poyo (altsasuarra), Sergio Prego, Francisco Ruiz de Infante, Juan Ugalde, Dario Urzay, Azucena Vieites eta Dario Villaba zeuden. Zerrenda argitaratu ondoren euskal gale-ristek aitortu zuten, bizpahiru izen falta ziren bertan, horietako bat Iñaki Mendizabal ordiziarra.

 **KULTURA** / joxean.agirre@gaur8.info

Sorkuntzaren beste arloekin alderatua, gure artista plastikoak dira inolako zalantzarik gabe nazioartean presentziarik handiena dutenak. Ez dago musikan, literaturan, zineman edo dantzaren alorrean munduan barrena horrela mugitzen den talderik. Aukeratu behar eta Asier Mendizabal, Ibon Aranberri eta Maider Lopezekin mintzatu gara, baina bienaletan nahiz erakusketa handietan parte hartzen duten euskal artisten zerrenda askoz ere luzeagoa da.

Zerrendako artisten maila balaratzeko, kontuan izan behar da Antoni Tapies ez zela sartu eta Miquel Barcelok boto bakarra jaso zuela.

Ismael Manterolaren ustetan, orain hamar bat urte hasi ziren euskal artista plastikoak nazioartean mugitzen. «Ez dute talde bat osatzen. Oteizaren garaian artistek taldeak, eskolak eta elkarteak osatzen zituzten. Oraingoak askoz ere indibidualistagoak dira, baina euskal arteak, hala ere, inoiz izan ez duen itza-

la eta presentzia ditu bai Estatu espainiarrean eta bai atzerrian. Nazioarteko panoramak nola funtzionatzen zuen ikasi zuten eta geroztik oso ondo mugitzen dira. Denak ez dira izango, baina gehienak profesionalak dira, artetik bizi direnak», jarraitu du Manterolak.

Leioako irakaslearen ustez badago nabarmendu beharreko beste fenomeno bat. «Txillidak, esate baterako, Parisko Maegh galeriari esker, atzerriko galeria bati esker alegia, lortu zuen bere obra mundura ateratzea. Gaurko artistek, ordea, bertako galerien bidez lortu dute gauza bera egitea», esan du.

Baina zer saltzen dute? «Egia da proiektuekin lan egiten dutela eta azken batean gai baten inguruko diskurtsoak dituztela artista hauek, baina proiektu horiei buruzko materialak saltzen dituzte, askotan lau argazki izaten dira edo bideo bat, baina atzean proiektu garatu bat izaten dute beti», dio.

Arte plastikoek gurean izan duten loraldia esplikatze-ko

ezinbestekoa da EHUko Arte Ederretako Fakultatearen sorrera kontuan hartzea, Madril eta Bartzelonako fakultateen ondoren hirugarrena izan baitzen Leioakoa. «Txikiago eta tradizionalagoren batzuk baziren, Salamancakoa esate baterako, baina fakultate berri bat martxan jartzeak eragin izugarria izan zuen eta garrantzitsua da halaber Arteleku bezalako laborategi bat Donostian egotea. Aipatzen ari garen artisten zerrenda horretan donostiarrak dira nagusi eta hori ere ez da kasualitatea», jarraitu du.

Euskal artearen azken mendeko historian Oteizaren figura giltzarria izan da, gerra aurreko artarekiko eta bereziki abangoardiarekiko lotura egin zuelako. «Gure fakultatean Oteizaren jarraitzaileen belaunaldi bat egon zen, Txomin Badiola, Anjel Bados eta abar, 80ko hamarkadan eskultura berriaren bigarren belaunaldia deitu zitzaiona, eta horiek utzi zuten arrastoa izugarria izan da. Kontuan izan Estatuko jendea datorrela gure fakultatera arrasto horren bila eta marka horrek atzerrian ere saltzen duela. Belaunaldi horretako Artelekun emandako ikastaroetan abiatutakoak dira gaur punta-puntan dabilen artista gazteagoak, Maider Lopez, Itziar Okariz, Asier Mendizabal, Iñaki Garmendia eta beste hainbat. Arteleku erreferentzia ezinbestekoa izan zen garai horretan Estatu mailan eta baita Europan ere. Zaila da meritua banatzen hastea, baina erakundeen laguntzak hemen adina oso leku gutxitan eman dira, eta gero sariak eta lehiaketa asko antolatzen da eta horrek ere eragin handia du. Gazteen mailako lehiaketak EAEko lurralde bakoitzean daude, baita Nafarroan ere. Sorkuntzarako bekak ere asko eman dira. Ez da kasualitatea Hegoaldean artearen arloan lortu dugun maila. Hemen diru kopuru handiak erabili dira artearen alde», erantsi du Ismael Manterolak.

Leioako Arte Ederretako Fakultatean Artearen Historia erakusten du Manterolak.



Maider Lopezen «Ados Nago» proiektua, Bilboko Guggenheim museorekin atarian.

Jon HERNÁEZ | ARGAZKI PRESS